



SINATZAILEA

El Alcalde de Areso/Aresoko Alkatea  
JOSE OTERMIN ECHARRI  
2023/11/06



ARESOko UDALA

## 98/2023 ALKATE EBAZPENA

Areson, 2023ko azaroaren 6an.

**GAIA: Aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesua oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Izendapena.**

JOSE OTERMIN ECHARRI-k, Udalerri honetako Alkateak, Toki- araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.artikuluak onartzen dion gaitasunean honakoa:

### ADIERAZTEN DU:

**LEHENENGOA.-** 2022ko urriaren 31ko Nafarroako Aldizkari Publikoko 215. aldizkarian argitaratu ziren Aresoko udaleko administrari lanpostua oposizio-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia eta prozesua arautuko duten oinarriak, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** 2023ko azaroaren 3ko 97/2023 Ebazpenaren bidez, behin betiko zerrenda onartu zen. Toki-erakundearen web-orrian argitaratu zen ebazpen hori. Aldi berean, oposizio-fasea eta merezimendu-lehiaketa amaitu ondoren, puntuazio handiena zuten hautagaiak izendatzeko proposamena argitaratu zen toki-erakundearen web-orrian.

Hori kontutan hartuta,

### EBAZTEN DU:

**LEHENENGO.-** Olatz Zubiri Goizueta andrea Aresoko Udalaren zerbitzurako funtzionario izendatzea administrari lanpostua (PO-ko 3.postua) betetzeko:

- Izen-abizenak: Olatz Zubiri Goizueta
- Txanda: Oposizio-lehiaketa
- Lanpostua: Administraria
- Maila: C
- Araubide juridikoa: F
- Hizkuntzak: Euskara (EGA/C1)
- Lanaldia: %50

1



SINATZAILEA

El Secretario de Areso  
MAIDER CASTILLA ELARBE  
2023/11/06

ARESOko UDALA | Eliz bidea z/g | 31876 ARESO (Nafarroa) | T. 948 510 327 | CIF/IFK P-31 031 000-H



ARESO

Egiaztapen-aseguru kodea: 7EAA AUAL 99NU U2CK W9RL

**Resolución Nº 98 de 06/11/2023 "Administrari lanpostua oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Izendapena." - SEGRA 10280**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://egoitzaelektronikoa.areso.eus/> 2tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

El Alcalde de Areso/Aresoko Alkatea  
JOSE OTERMIN ECHARRI  
2023/11/06



SINATZAILEA

El Secretario de Areso  
MAIDER CASTILLA ELARRE  
2023/11/06

ARESOko UDALA | Eliz bidea z/g | 31876 ARESO (Nafarroa) | T. 948 510 327 | CIF/IFK P-31 031 000-H



ARESOko UDALA

**HIRUGARRENA.** Izendatutako izangaiak 10 eguneko epean jabetu beharko du lanpostuaz, Nafarroako Administrazio Publikoetan Enplegu Publikoaren Behin-behinekotasuna Murrizteko Presako Neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze-prozesuak egiteko neurriei buruzko uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen 6.4 artikulua arabera.

Epe hori igarota, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, lanpostuaz jabetzen ez duenak galdu egingo ditu deialdia egin duen toki-erakundeko funtzionario izateko eskubide guztiak.

**LAUGARRENA.-** Ebazpen hau toki-entitatearen pertsonal-arloari helaraztea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta interesdunei jakinaraztea.

Areson, 2023ko azaroaren 6an

Alkatea,

Jose Otermin Echarrri

Idazkariaren B.O.

Maidar Castilla Elarre

Horren guztiaren berri izan dezazun eta dagozkion ondorioak sor ditzan jakinarazten dizut; deialdi honen aurka errekurso hauetakoren bat jarri ahalko da:

- 1.- Aukeran, eta beti ere hilabeteko epean, Berraztertzeko errekurtsua, egintzaren organo egileari zuzendua, edo Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua.
- 2.- Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, aurreikusitako kasuetan salbu.



ARESO

Egiaztapen-aseguru kodea: 7EAA AUAL 99NU U2CK W9RL

**Resolución Nº 98 de 06/11/2023 "Administrari lanpostua oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Izendapena." - SEGRA 10280**

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://egoitzaelektronikoa.areso.eus/> 2tik 2 orrialdea